

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4631

AGINDUA, 2023ko irailaren 29koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administralari Laguntzaileen Kidegoko Administralari Laguntzaileen Eskalan eta Administralarien Kidegoko Administralarien Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaien osaera.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, deialdia egin zen Administralari Laguntzaileen Kidegoko Administralari Laguntzaileen Eskalan eta Administralarien Kidegoko Administralarien Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako.

2022ko uztailaren 12ko Aginduaren bidez (2022ko abuztuaren 3ko eta 19ko aginduek aldatu zuten agindu hori), hautaketa-prozesu horietako epaimahaietan parte hartu behar duten pertsonak izendatu ziren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorretako 18. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

Administralari Laguntzaileen Kidegoko Administralari Laguntzaileen Eskalan eta Administralarien Kidegoko Administralarien Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaietan epaimahaiburu titular eta ordezkoko epaimahaiburu izateko izendatutako pertsonak, ordea, dagoeneko ez dira karrerako funtzionario izango agindu hori indarrean jartzen den datan, erretiroa hartua izango dutelako. Horregatik, beste pertsona batzuk izendatu behar dira.

Horrenbestez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.8 artikuluan 18.2.q) artikuluari dagokionez xedatzen denaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Imanol Uriguen Garaizabal izendatzea Administralari Laguntzaileen Kidegoko Administralari Laguntzaileen Eskalan eta Administralarien Kidegoko Administralarien Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaietako epaimahaiburu titular eta, Manu Arrasate Mugertza, berriz, ordezkoko epaimahaiburu.

Izendatutako pertsonak osatuko dituzte aipatutako epaimahaiak, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Bigarren artikulua.– Agindu hau 2023ko urriaren 10ean jarriko da indarrean.

Hirugarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 29a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.